

PARTE HARTZE KOMUNITARIOA BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN GAZTEEKIN

Sistematizazioa esperientziatik

Ela Pérez Alva



Lan Taldea:



SORGIN
LORE

Babesleak:



PARTE HARTZE KOMUNITARIOA BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN GAZTEEKIN


Sistematizazioa esperientziatik



Zurekin partekatu nahi dugu...

Dokumentu honetan gogoeta eginez berreskuratzen dugu “*Munduko auzoekin ikasten, bertako auzoan ekin*” proiektuaren ikasleen eta irakasleen parte hartze komunitarioaren prozesua. Proiektua ADSIS Fundazioak eta Sorginlore Gizarte Elkartek batera gauzatu dute, 2020 eta 2024 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostiako (Gipuzkoa) Bidebieta auzoko Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroan (OLHZ), Gasteizko (Araba) Sansomendi eta Lakuako auzoko Ali Gobeo Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroan (OLHZ), eta Basauriko (Bizkaia) Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan (OLHUI). Prozesua honek, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren, Donostiako Udalako Lankidetzarako arloaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Lankidetzaren arloaren laguntza du.

Esperientziara OLH zentroetako ikasleen parte hartze komunitarioaren ikuspegitik hurbiltzea erabaki genuen. Gainera herri-hezkuntzaren, eskubideen, feminismoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegiak erantsi genituen. Horrela honako hauek lortzeko:

- Gizarte-eragileekin, erakundeekin, bizilagunen elkarteekin eta udalarekin elkartzea erraztu zuten estrategiak eta jarduerak berreskuratzea.
- Ikasturte bakoitzaren hasieran, bitartean eta amaieran itzaropenak eta bizipenak agerian jartzea, ekintza komunitarioetako gazteen parte hartze aktiboaren esperientzia pertsonaletatik.
- Testuinguru komunitarioan gazteen inplikazio sozial, aktibo eta elkartasunezkoa sustatzeko egindako lanketari jarraipena emango dioten estrategiak ezartzea.
- Jasangarritasun-elementuak identifikatzea herritarren prestakuntzan, ingurune komunitarioan aldaketaren subjektu izanik.





Esperientzia gazte parte-hartzaileen hitzetan

Gehien sentitu, lehenetsi eta kontatu diren bizipen bezala berreskuratu ditugun hitz batzuk:

1 Zerk erakarri gaitu komunitatetik gertu parte hartzera?

DONOSTIA:

- Komunitatearekin hitz egiteak. Pertsona batzuk oso atseginak direla konturatu gara, interesa adierazi dute. Auzorako ona izan dela ikusi dugu.
- Egingo dena esaldi argien bidez entzutea.
- Harreman mota nire kideekin, adinekoekin eta irakaslearekin. Elkarriketan aritzen ginen.
- Egin nahi genituen hainbat gauza egitea.

GASTEIZ:

- Emakumeek eta gizonek parte hartzeko aukeren berdintasuna.
- ADSI Setik gizartean aritzeko laguntza eta aholku onak jasotzea.
- Pertsonak gauza onak egiten ditugula konturatu zirela ikustea.
- Zoriontasun aurpegiak ikustea, guri laguntza eskatzea, kasu egitea, arreta jartzea.
- Festa batekin ospatzea, gure familiak etorri ziren eta jakiak prestatu zituzten. Adinekoak eta enpresetatik ere etorri izana

BASAURI:

- Horma-irudien taldeko jarduera.
- Gure hitza kontuan hartu izana.
- Aitonek eta andreek esfortzua egiten zutela eta kasu egiten zigutela.
- Denekin partekatzea, auzokide elkarteko norbait eta alkatea etorri izana.

2 Zein aldaketa izan ditugu komunitateari laguntzea dugun ulertzeko moduan?

DONOSTIA:

- Hezteko beste modu bat dela ulertu dugu, bakarrik ikasten egotea eta bat-batean zerbait berria, zentro osoa elkarlanean ari zen proiektua.
- Esperientziak lortzea, hau egiteak gero jendaurreko lanean laguntzen dizu.
- Ezezagunei laguntzeko, ezezagunekin harremanetan jartzeko ausardia izatea.

GASTEIZ:

- Konturatu gara urteen poderioz gauzak aldatzen direla, ekarpenak egiten eta auzoa hobetzen saiatu gaitezkeela, ondo dagoela gazteak horrelako gaiez arduratzea.
- Lehen, pertsonekin harremanetan jartzea kostatzen zitzagun. “Munduko” ondoren, ez dugu hainbesteko beldurrik, mesfidantzarik.
- Hasieran erabat uko egiten nion. Gero izugarri gustatu zitzaidan jendea zetorrelako, hitz egiten genuelako, beste kultura batzuetako jendea zetorrelako, gure familiekin eta auzokideekin partekatu genuelako, zoriontzen zigutelako.

BASAURI:

- Auzoko pertsona batzuen esker ona sentitu genuen, onartzeko modu bat.
- Orain badakigu bi aldetatik elkarri entzun behar diogula.

3 Zer sentitu dugu negatibo gisa bizi izan dugun esperientzian?

DONOSTIA:

- Ez dira loreontziak zaindu, gogorik ez zegoela zirudien kolean daudelako eta zailagoa delako.
- Pertsonekin hitz egiten duzunean erantzun bortitzak eta zailak jaso ditzakezu, gaizki sentitzen zara

GASTEIZ:

- Horrelako jarduerak errepikatu behar direla senti dezakezu. Baina agian ez urtero, zama handia delako, lana gogorra delako, aurrera egitea kosta egiten delako, proiektua berriro egiteko auzoa pixka bat aldatzera itxaron behar delako, aldaketak luzeak direlako eta atzeratu egiten direlako

BASAURI:

- Gure marrazkiei ezetz esan zietenean, frustrazioa sentitu genuen, talde osorako garrantzitsua baitzen. Batzuk gogogabetu ziren, lana ez zen aitortu eta marrazkien esanahia ez ulertu izanak amorru handia sentiarazi zigun.
- Asko ateratzen dira eskolak galtzeagatik, erretzeko. Ezer aldatu ez dela esaten dute, baina nola ulertuko dute ez badute ahaleginik egiten.
- Agintariak haien artean bakarrik hitz egiten zuten, ez zuten gurekin hitz egiten eta garrantzi handia ematen zaie. Elkarre bateko kolonbiar bat etorri zen, bere herrialdeko arroz-esnea egiteko joan zen sukaldera, eta hori agintariei bakarrik eskaini zitzaien

.

4 Zer ikasi dugu komunitatera gerturatzean?

DONOSTIA:

- Ikasten ari garen tokia ezagutzea, bertako historia, janaria, musika, pertsonekin harremanak, bakoitzaren bizimoduak, ez bakarrik kulturagatik, haratago doa.
- Ideiak aurrera egitea, ez dugu dena argi, zure ideia ona dela uste duzu. Baina azkenean ez da hain ona eta garrantzitsua da eztabaidatzea eta bideratu gaitzate.
- Kulturen gaia ez da hain zaila, institutuan bada jendea zu bezalako historia duena. Nola tratatuko duzu gaizki zuk bezalako historia duen pertsona?

GASTEIZ:

- Gure ideiak eta proposamenak jasotzea garrantzitsua da, hezitzaileek laguntzen digutela sentitzea.
- Gauza berriak ikusteko, gauzak azaltzeko, egoerei buruz pentsatzen duzuna transmititzeko aukera da esperientzia hau.
- Heldu batzuk atseginak dira, konturatu dira bizitza motza dela, pertsonak gaizki tratatzeak ez duela merezi. Tristezia ere badute, hala diote: “hilabete edo gehiago daramat semea edo alaba ikusi gabe”.
- Gazteak auzoaz eta adinekoez arduratzea ondo dagoela.
- Auzoa hobetu dela, lehen ez zen orain bezala.

BASAURI:

- Auzoan dauden arazoez konturatu ginen, helduen hainbat pentsaera ezagutu ditugu.
- Zerbait egiteak prozesu luzea behar duela.
- Adostu duzuna errespetatu behar duzula.
- Sartu ahala parte hartzea aldatzen doa. Pertsona azaltzen jakin behar da, bestela, haserretzen dira, ez dizute entzuten edo eten egiten dizute.

5 Zerk adierazten du komunitateak egindako ekintzak baloratzen dituela?

DONOSTIA:

- Adinekoek eskerrak ematea, proiektu hau gustatzen zitzaiela esanez begiratzen ziguten. Lana aintzat hartzea, adinekoen erakusteko modua maitasuna ematea zen.
- Solidario garela esaten ziguten, bazkaltzera gonbidatzen gintuzten.
- Proiektu horri esker institutuak sari bat irabazi zuen, egunkarian atera ginen. Nire ama harro zegoen.

GASTEIZ:

- Adinekoekin, ikasturtea amaitu eta gero, adiskidetasuna mantendu genuen eta bisitatzen jarraitu genuen.
- Haien historiak kontatzen dizkigute, adibidez, gerrari buruz, auzoen arteko liskarrak, nolakoa zen auzoa duela 40 urte. Lehengo eta oraingo gazteei buruz hitz egin genuen.
- Gauza pertsonalak kontatzen zizkiguten, bakarrik sentitzen zirela.

BASAURI:

- Laguntza, muralgilea edo grafitigilea zen neska bat zegoen eta lagundu zigun.
- Plaka batekin inauguratu zutenean, zentroko pertsonak etorri ziren.

6 Zer hobekuntza eta iradokizun proposatuko zenituzke komunitatearekin egindako lana hobetzeko?

DONOSTIA:

- Gazteak prestatu behar dira jakin dezaten denek ez dituztela ondo hartuko. Ez duzu amore eman behar, ez hartu gauza pertsonaltzat, ez eztabaidatu, ez du merezi.
- Jarduerak jarraitu behar dute, horretarako jendea kontzientziatu behar da, irekitasuna duen pertsonengan arreta jarri.
- Hezitzaileei, pertsonaren baitan dagoela esango genieke, ez adinaren baitan.
- Agintariei esango nieke materialekin laguntzea ondo datorrela.

GASTEIZ:

- Auzoari, agintariei, udalari informazioa ematea, ez bakarrik baimenak eskatzea.
- Auzorako hobekuntza dela azaltzea, zoriontasuna dakarrena.
- Irakasleek gauza hauek egin behar dituzte: esaten edo eskatzen duguna entzun, gure jarrera eta begirada irakurri, keinuek gauzak esaten baitituzte, lana betetzea baina haratago joateaz arduratu.
- Hezitzaileak ez dira beti bertan egon behar, nekagarria baita, hor egon behar dute eta pertsona modu autonomoan lanean ari dela ikustean, bakarrik utzi.

BASAURI:

- Helduek esaten digutenari erantzuten jakitea. Asko arrazistak dira, nerabeak aurretik epaitzeko joera dute entzuten dutenagatik, gure janzteko moduagatik, barre egiten dugulako, hitz egiten ari garelako.

7 Proiektuko zer egingo zenuke beste modu batera komunitatearekin egindako lana hobetzeko?

DONOSTIA:

- Auzokideei proiektua bideratzen laguntzeko esango genieke, landareak jartzeaz gain mantentzea eta zaintzea ere badela.
- Zentroko zuzendariari esango nioke, primeran egongo zela lehen mailakoekin hitz egin izan bagenu, haiek kontzientziatzen saiatzeko.
- Agintari batekin hitz egitea garrantzitsua da, udalaren eta alkatetzaren baiezkoa behar da eta.

GASTEIZ:

- Uste dut gazteen gauzak gehiago landu behar direla. Kideak estututa ikusten ditudanean, ez duela merezi esaten dut, pobrezia, gerra egoeran dagoen beste herrialde batean egotea nahiko nuke, hori baita zaila. Hemengo gazteek dutenari ez diote balioa ematen, hain eroso bizi izan dira, ez diotela balioa ematen. Gorputzarekin eroso ez dauden neskak ikusten ditut, eta esaten diet gerraren ondorioz hanka bat ez duen jendea dagoela eta zu ezer gutxiatik sufritzen ari zarela.
- Lidergoa gehiago lantzea, ez jarduerak bakarrik egitea.
- Agintariekin harreman gertuagoa izatea.

BASAURI:

- Irakasleekin gehiago adostea institutuan, eten ez zaitzaten edo zutaz edo zure gauzez paso egin ez dezaten.
- Eskoletako eta proiektuko uneen arteko lotura hobetzea.
- Udalarekin hobeto koordinatzea gauza gehiago egiteko, ez ditzatela hitz formalak bakarrik esan edo ez daitezela bakarrik argazkiak ateratzera etorri.

Ateratako ikaspenak

Azkenik, helburuetan eta proposatutako ardatzetan ikasi ditugun ikaspenak hauek dira:

1. **Gizarte eragileekin, erakundeekin, bizilagunen elkarteekin eta udalarekin lotura erraztu duten estrategiak eta jarduerak**

- Auzoan lanean hasi berri zirenentzat hainbat mailatako ikasleen arteko esperientzien trukaketa funtsezkoa izan da.
- Ekintzak eta ikasleak laguntzeko prozesuan, erantzukizuna, arreta eta auzoarekin taldeko elkar eragite gehiago moldatzeko, honako hauek elkar zeharkatzen dute: gazteen askatasun eskaera, laguntzaren eskaera eta auzoan eraginak lortzearen beharra.
- Gazteak haurrekin edo helduekin lotzen dituen belaunaldien arteko ekintzak aproposak dira gazteriaren eta komunitatearen arteko elkar eragiteko lehen une gisa.
- Elkarrekin tresnak diseinatzea eta zereginak planifikatzea adostasuna eta barne sartzea eragiten dute.
- Auzoarekin harremanetan egoteak institutuari komunitatera irekitzeko aukera ematen dio, eta ikasleei buruz izaten den aurreiritzi-irudian eta balorazioan aldaketak errazten ditu.
- Ikasleentzat kaleetara ateratzea eta pertsona ezezagunekin hitz egitea urrats handia izan da, etorkizuneko egoera gizarteko eta laneko jardueretarako prestatzen zirela sentitu zuten.
- Agintariekin eta funtzionarioekin lotura sortzeko berariazko estrategia gauzatu behar da, sentsibilizatzeko eta testuinguruan jartzeko prozesu batekin hasi, gero komunikazio- eta sortze-kanalak, adostasunerako eta akordioetarako kanalak sortzeko.
- Espezialitate batzuekin komunitatean ekintzak sortzea errazagoa da (informatika eta ile-apainketa). Beste batzuekin zailagoa da (soldadura eta karrozeria). Zentroko programazioan ekintza komunitarioak sartzea da aukera bat.
- Eragileekin, erakundeekin, elkarteekin eta udalarekin loturak egiteko, ospakizuna estrategia indartsua da.

2. Bizipenetatik, itxaropenetatik eta norberaren esperientzietatik identifikatutako elementuak, ekimen komunitarioan gazteek parte hartze aktiboaren oinarri gisa

- Esperientziaren gazteen bizipenera hurbiltzea baimentzen duten alderdi batzuk dira: lotsa eta ezezagunari beldurra gainditzeko baliabideak eta ekintzak hobetzea; ikasleek arreta ematen dietela sentitzea; norberaren apainketa; aintzat hartuak sentitzen direla adierazten duten ahoko eta keinu adierazpenak.
- Erakundeekin eta agintariekin jarduera komunitarioen ezaugarriei eta emaitzei buruzko akordio argiek ikasleengan frustrazioa eta eragin negatiboak saihesten dituzte.
- Auzoan lan egitean, belaunaldien arteko talkek erremina eta urruntzea eragiten dute. Horiek kudeatzeko hezitzaileen taldea eta ikasleak prestatzea garrantzitsua da.
- Ikasleek laguntzaren funtsezko osagai metodologiko gisa identifikatzen dituzten hiru alderdi dira: hezitzaileek aktiboki entzutea, ikasleen hitza adierazten uztea eta pertsonarekiko interesa izatea betetze akademikoarekin gainera.
- Kalean zabaldutako prozesuak parte-hartzaile guztiek eratutako ideiekin izateak balorazio eta autobalorazio, errespetu eta autoerrespetu sentimenduak ekarri zituen.
- Interesgarria da gazte migratzaile baten nabarmentzea kontuan hartzea, egoera zailak bizi dituzten bertako gazteek erraztasun eta aukera asko dituztela adierazten baitu, normalizatuta daudenez, gazteen kontzientziazatik eta baloraziotik kanpo geratzen diren erraztasun eta aukera berberak. Era berean, horrek bertako gazteak ahultzen ditu eta arazoak direnak baino handiago dimentsionatzen dituzte.

3. Gazteak ingurune komunitarioan gizarteko modu aktiboan eta solidarioan sartzeko lanari jarraipena emateko laguntza estrategikoak

- Hezitzaileek lan karga handiago izaten zuten proiektuaren jarduerak berriak baitziren, baina ikasleen jakin-mina pizten zela ikusi zuten. Berritasunaren eskaera, gazteen ikasketaren funtsezko ezaugarria, hezitzaileek modu pedagogikoan eta praktikokoan kudeatzen jakin behar duten baliabide pedagogikoa da.
- Ikasleek eskatzen duten orientazioa ez da helduen edo adituen ezaguerak sendotzean oinarrituta egon behar, abiapuntu gisa ulertu behar da: ikasketarako gogoia lantzeko, ezaguerak taldean eraikitzea ikertzeko eta ezagutza bidezko autonomia sortzeko.
- Gazteen protagonismoa bultzatzeko garrantzitsuak dira norberaren garapenaren parte eginaraztea, irizpideak ematea eta erabakiak hartzen uztea.
- Lortutakoaz jabetzeak jarduera pedagogikoa izan behar du eta modu didaktikoan egin behar da, ez da bat-batean gerta dadila utzi behar.
- Arauei jarraitzen ikastea berrikuntzari edo jarduerak egiteko aske sentitzeari uko egin gabe, hau da, horiek norberaren edo taldeko garapena zapaltzen edo itotzen ez dutenean, proiektuaren printzipio pedagogikoetarako beste funtsezko alderdi bat da.
- Ikasleei buruz izaten den irudia aldatzea prozesu luzea da. Funtsezkoa da gidatzea: pertsonak duten aurreiritzia gazteekiko, haien ezaugarri kulturalekiko eta haien janzkerek eta portaerek islatzen duten “desberdintasun” irudia.
- Gazteen mundu pertsonalak, kulturartekoak eta teknologikoak (nahiz eta laguntzarako eta proiekturako belaunaldien arteko erronka izan), aukera ematen dute ekintzak dinamizatzeko eta gaurkotasuna emateko, eta komunitateko gazteen eta gazteentzako gune sozio-kulturalak indartzeko.

4. Jasangarritasun-elementuak herritarren prestakuntzan, herritarrek ingurune komunitarioan aldaketaren subjektu izanik

- Komunitateko pertsonen eguneroko beharrak identifikatzean oinarritutako jarduerak egitea, estrategia eta jarduera jasagarrien plangintzaren osagai sendoenetako bat da.
- Estrategikoa da proiektuko jarduerak modu instituzionalean kokatzea, ikastaroen artikulazioa eta proiektuarekiko xehetasunak sendotzea, lurralde bakoitzaren arabera.
- Gobernuako agintariekiko eta erakundeekiko harremanen plangintzan intzidentzia eta mailaketa sartzea, garrantzitsua da frustrazioak saihesteko.
- Herritartasuneko prestakuntzaren jasagarritasunak baliabide pedagogiko sendoa aurkitzen du komunitatearen eta ikasleen arteko ikasketa-trukean: aniztasunetik, kulturartekotasunetik, memoria berreskuratzetik (tokikoa, auzokoa, ikastetxekoa, pertsonena) hurbiltzea ahalbidetzen du.
- Auzoan sortutako sarea udalarekin ekintzak negoziatzeko oinarria da. Horri dagokionez, funtsezkoa da horri eustea, eta, posible bada, harreman komunitarioen sarea zabaltzea.

